

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AÑANAKO KUADRILLA

#### Lehendakaritzaren 2024ko 118. Ebazpena. Artxiboko teknikariaren izendapena, lanaldiaren ehuneko laurogeian, karrerako funtzionario gisa

Lehendakaritzaren 2024ko urriaren 23ko 118 zenbakiko Ebazpenaren bidez, artxiboko teknikaria karrerako funtzionario izendatu da:

Raquel Abascal Hermosilla, Añanako Kuadrillako karrerako funtzionarioa, artxiboko teknikari lanpostuan, ehuneko 80an, administrazio bereziko eskalakoa, azpieskala teknikokoa, klase ertainekoa, eta lanpostu horri atxikitzea, A2 taldekoa.

Interesdunak 10 eguneko epea izango du lanpostuaz jabetzeko, izendapena ALHAOn argitaratzen denetik hasita.

Hori guztia argitara ematen da, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 63. artikuluan eta aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoaren arabera.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Aukerako berraztertze errekurtso hori jarri ezean, zabalik geratuko da bide judiziala; beraz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da txandaren arabera dagokion Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Ribabellosa, 2024ko urriaren 28a

*Lehendakaria*

**RUBÉNTORREMOCHA GALÁN**